



EAJ eta HBren
arteko solasen
bigarren bilera
egingo da bihar / 4



Lefort intsumisoak
13 hilabeteko
gartzela zigorra
bete beharko du / 6



Konfederazio eta
federazioaren
arteko Europa nahi
du Giscardek / 18

Egunkaria

OSTEGUNA, 1992ko maiatzak 28 / III. urtea / 457. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 5 libera

ANTZERKIA

Goaz taldearen estreinaldia Deban

Bihar estreinatuko da Deban Goaz taldearen azken muntaia: 'Fernando, bizirik hago oraino'. Estreinaldia VI Antzerki Astean kokatua da. / 24

Greba ia erabatekoa izan zen EAEEn

Nafarroan ere deialdiak erantzun zabala izan zuen ELA eta LAB sindikatuen arabera

Greba orokorra Euskal Autonomi Elkartearen erabatekoa izan zen ELA, CCOO eta LAB sindikatuen arabera, eta Nafarroan lanuztea % 50ekoa izan zela adierazi zuten ELA eta LABek. Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak, aldiz, greba langileen % 70ek baino ez zutela egin esan zuen.

Istilu garrantzitsurik ez zen gertatu egunean zehar, eta babes zibil eta osasun arloetan gutxieneko zerbitzuak bete egin ziren. Garraioetako zerbitzu minimoak, aldiz, ez ziren guztiz bete espero zen bezala.

Arratsaldean, manifestazio jendetsuak egin zituzten Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan, *dekretukada* zein Greba Legearen aurkako eta berrindustrializazioaren aldeko mezuekin. UGT sindikatuak, greba orokorrari bere sostengua eman bazion ere, manifestazioetan partehartzeko deirik ez zuen egin 27ko



Lantegiak itxita egon ziren egun osoan, eta hiriburuetako kaleak hartu zituzten langileek arratsaldean.



ANDER GILLENEA / XOUSE SIMAL

deialdi bereziarekin ados ez zegoela adierazteko.

Manifestazioen ondoren sindikatuetakoa buruzagiek greba

egunaren balorazio guztiz positiboa egin bazuten, enpresari elkartetako ordezkariak alderantzizko iritzia plazaratu zuten, eta

«piketeen boikot eta bortizkeriari» egotzi zioten lan geldialdia.

Gaur, bigarren greba deialdiari

erantzun zuten nafarrek, CCOO eta UGTk Espainian egin duten deia eutsi egin bait diote Nafarroan ere. / 8-17


Antonio Asuncion: «Salto del Negro legedia bete eta gehiago egiten da»

Kanarietako Salto del Negro gartzelan «legedia bete eta gehiago» egiten dela esan zien Antonio Asuncion Espetxeetarako Zuzendaritzako arduradun nagusiak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko parlamentariari atzo. Gose eta egarri greban dauden presoek eskaerak gartzela barruko araudiaren aurkakoak direla esan zuen ere Asuncionek batzordearekin egingadako bileran.

Asuncionen bidez eza-gutu zen Pedro Guridi pre-meritak 23 hasi zuen maiatzaren 28an, eta egarri dituela. / 4

Giroa irabazteko faborito nagusia bera dela erakutsi zuen Indurainek

Miguel Indurainek Giroa irabazteko faborito nagusia bera dela erakutsi zuen atzo. Herenegun go etapan *maglia rosa* bereganatu ondoren, atzoko erlojupekoa irabazi eta bere arerio nagusiei minututik gorako aldea atera zien. Atarrabiakoak baino minutu eta 9 segundu gehiago behar izan zituen Chiapuccik 38 kilometroko ibilbidea betetzeko, minutu eta 46 segunduko aldea atera zion Giovannettiri eta 2 minutu eta 16 segunduko Chioccioliri. Alde nabarmena lortu du Indurainek sailkapen nagusian eta lasai ekin diezaioke bihar bertan korrituko den lehen etapa menditsuari. Fignon, Lelli eta Hampstenek kale egin zuten atzoko lasterketan. / 21



Indurainek nagusitasun osoz irabazi zuen atzoko erlojupekoa.

BESTERIK

POLITIKA

EAJrekin bildu ondoren HBk ez du akordiorik espero Gipuzkoako aurrekontuetan / 4

NAZIOARTEA

Scalfarok bihar zin egingo dio Italiako lehendakari karguari / 19

KIROLA

Athleticek diru zigorra ezarri dio Billabonari Ramon de Carranzan txiza egiteagatik / 22